



*Udal honek onartu nahi du*  
BAZTANGO UDALARENA DEN ARIZKUNENEA  
KULTUR ETXEKO FUNTZIONAMENDUA ETA  
ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Herritarrek erregelamendu-mailako arauak egiteko prozeduran parte hartuko dutela bermatzeko, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoa betez, ordenantza egin baino lehen, aurretiazko kontsulta publiko bat eginen da herritarren eta ordenantzak eragin diezaiekeen erakunde adierazgarrien iritzia jasotzeko.

Ondorioz, kontsulta publikoan paratzen da, udal ordenantza egin aitzinetik, honako

## MEMORIA

### a) Aurrekariak:

Baztango Bailarak Arizkunenea Kultur Etxeko lokalak erabiltzeko eskaera aunitz kudeatzen ditu, eta horietako gehienak zuzenean kudeatu daitezke Udalaren Kultura Zerbitzuaren bitartez.

Hortaz, esleipen-irizpideak eta erabilera-arauak ezartzeko, ARIZKUNENEA KULTUR ETXEKO FUNTZIONAMENDUA ETA ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA onartu nahi da.

### b) Indartu beharreko ahultasunak:

Administrazio-izapideari arintasuna eman nahi zaio, eta, aldi berean, herritarrei berehala erantzutea lortu nahi da.

*Este Ayuntamiento pretende aprobar la*  
ORDENANZA REGULADORA PARA EL  
FUNCIONAMIENTO Y UTILIZACIÓN DE LA CASA  
DE CULTURA ARIZKUNENEA DEL  
AYUNTAMIENTO DE BAZTAN

*Con el objetivo de garantizar la participación de la ciudadanía en el procedimiento de elaboración de normas con rango reglamentario, y en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 133 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre del procedimiento administrativo común de las administraciones públicas con carácter previo a la elaboración de la Ordenanza, se sustancia una consulta pública previa para recabar la opinión de la ciudadanía y de las organizaciones más representativas que potencialmente se puedan ver afectados por la misma.*

*En consecuencia, se somete a consulta pública previa elaboración de la Ordenanza municipal, la siguiente*

## MEMORIA

### a) Antecedentes:

*El Valle de Baztan gestiona un número muy elevado de solicitudes de uso de los locales de la Casa de Cultura Arizkunenea, de los cuales un porcentaje muy alto se pueden gestionar de forma directa a través del Servicio de Cultura municipal.*

*Con la finalidad de establecer los criterios de adjudicación y normas de uso se pretende la aprobación de una ORDENANZA REGULADORA PARA EL FUNCIONAMIENTO Y UTILIZACIÓN DE LA CASA DE CULTURA ARIZKUNENEA.*

### b) Debilidades a reforzar:

*Se le quiere dar agilidad a la tramitación administrativa a la vez que se pretende la inmediatez en la respuesta a la ciudadanía.*

c) Onartzeko beharra eta egokitasuna:

Premia hori, bailarako kultur elkarte eta eragileek Kultur Etxea puntualki eta/edo modu jarraituan erabiltzearen ondorio da. Hori dela eta, beharrezkoa da dokumentu bat izatea, lokalen eta behar diren materialen sarbidea eta erabilera zehaztuko duena (aulkiak, mahaiak, proiektagailuak, kableak, etab.).

d) Ordenantzaren helburuak:

Arizkunenea Kultur Etxeko lokalen eta materialen lagapen- eta erabilera-irizpideen kudeaketa arautzea.

e) Bertzelako irtenbide posibleak, erregulatuak eta ez-erregulatuak:  
Ez dira aurreikusten

Ediktu hau udalaren webgunean argitaratu eta hurrengo hogeita egunetan, hala nahi duten herritarrek, erakundeek eta elkarteek beren iritzia helarazi ahal izanen dituzte [ekarpenak@baztan.eus](mailto:ekarpenak@baztan.eus) posta elektronikoren bidez, **gaitan ARIZKUNENEA – ERABILERA** paratuz.

c) Necesidad y oportunidad de su aprobación:

La necesidad deriva del uso puntual y/o continuado de la Casa de Cultura por parte de asociaciones y agentes culturales del Valle. Es por ello necesario contar con un documento que determine el acceso y el uso tanto de los locales como de los materiales que se puedan necesitar (sillas, mesas, proyectores, cables, etc.).

d) Objetivos de la ordenanza:

Regular la gestión de espacios y criterios de cesión y uso de los diferentes locales y materiales de la Casa de Cultura Arizkunenea.

e) Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias:

No se aprecian

Durante el plazo de los veinte días siguientes a la publicación del presente Edicto en el sitio web municipal, ciudadanas/os, organizaciones y asociaciones que así lo consideren podrán hacer llegar sus opiniones a través del siguiente de correo electrónico [ekarpenak@baztan.eus](mailto:ekarpenak@baztan.eus) señalando en el asunto **ARIZKUNENEA – ERABILERA**.

Baztanen, 2022ko uztailaren 19an

En Baztan, a 19 de julio de 2022

